



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2015eko urriaren 27a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:40 **BUKATZEKO ORDUA:** 21:17

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Gotzon Igoa Agirrezabal, Amagoia Iribar Manzisidor, Miriam Uranga Egurza, Jose Angel Iparraguirre Alberdi eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarrak 2015eko uztailaren 7an egindako ezohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 10/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 3.- Onartzea, egoki bada, auto-taxi zerbitzuaren tarifa urbanoak 2016rako.



- 4.- Onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketa, eragina 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.
- 5.- Onartzea, egoki bada, azaroaren 25eko adierazpen instituzionala "Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna" dela-eta.
- 6.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2015EKO UZTAILAREN 7AN EGINDAKO EZOHICO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Miriam Uranga zinegotziak hartzen du hitza, Orain talde politikoaren izenean, eta adierazten du honako oharra egin nahi duela aktaren zirriborroaren gai-zerrendako hirugarren puntuan jasotzen denari buruz: bere ustez ez da behar bezala jaso berak, botoaren azalpena egiterakoan esandakoa, honako hau ere esan baitzuen:

- Alkateak esan zuen 2011-2015 agintaldian 7.000.000 euro gastatu zirela eta Miriamek eskatu zion banatzeko Udala osatzen duten gainerako talde politikoei horri buruzko informazioa.
- Bere talde politikoak 4 urteko epea ematen ziola alkateari frogatzeko merezi izan duela alkate kargua dedikazio eskusiboarekin betetzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, egindako oharrak kontuan hartuta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA 2015eko uztailaren 7ko ezohiko udalbatzarraren akta, Miriam Uranga zinegotziak (Orain) udalbatzar honetan egin dizkion oharrak sartuta.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 10/2015 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; ESPEDIENTEA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 10/2015 espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 28.976 euroko zenbatekoa du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2015eko urriaren 26ko bilkuran egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldua (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Emeterio Iribar (EHBildu), Dorronsoro (EHBildu), Igoa (EHBildu) eta Amagoia Iribar (EHBildu), guztira **LAU ABSTENTZIO**. Kontrako botoak: Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **BI KONTRAKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2015eko aurrekontuari dagokion 10/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 28.976 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Amaia Dorronsoro zinegotziak hartzen du hitza, EHBilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela honako arrazoiengatik:

- Kreditu aldatzeko espedientearen onarpena diktaminatzeko prozedura ez delako egokia izan: Horren froga da gaur bertan egin dela Hirigintzako batzorde informatzailearen bilkura eta atzo Ogasun batzordekoa.
- 2015-2019 agintaldia hasi denetik ez delako Gizarte Ongizate batzordearen bilkura bakar bat ere egin eta, kasu honetan, behar-beharrezkoa zelako kreditua



aldatzeko espedienteak eragindako batzorde informatzaileen bilkurak garaiz deitu eta egitea.

Aipatua izan delako, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du 10/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen tramitazioa lege ezarritako prozeduraren arabera egin dela, eta espediente horren bidez beharrezko diru-partidak egokitu direla Arrantzale kalean bidegorri bat egiteko, uko egin gabe Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalari emandako 20.456 euroko diru-laguntzari, aurreko agintaldian Udalak, Beñat Solaberrieta alkatearen dekretu baten bidez, eskatu zuena.

Miriam Uranga zinegotziak hartzen du hitza, Orain taldearen izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela ez datorrelako bat Arrantzale kalean bidegorria egiteko obrei buruzko espedientearen tramitazioarekin, honako arrazoiagatik: Gipuzkoako Foru Aldundiak ekainaren 19an jakinarazi zion Orioko Udalari diru-laguntza eman ziola, eta gaia ez da dagokion batzordean aztertu urriaren 19a arte; gero, obrak exekutatzeko proiektuaren berri urriaren 23an jakin zuten zinegotziek eta gaurko egunez diktaminatu da gaia Hirigintza batzorde informatzailean.

Adierazten du, baita ere, bere talde politikoa ez dagoela bidegorri hori egitearen kontra; baina ez dutela behar den denbora izan gaia aztertu, kontrastatu eta ekarpenak egiteko; kontuan hartuta, gainera, bidegorria egiteko, 11 aparkaleku kentzen direla zona horretan.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOAK 2016RAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Taxiaren Gipuzkoako elkarteak proposatu du 2016. urtean ez aldatzea indarrean dauden Urola Kosta eskualdeko tarifak, 2016ko urtarilaren 1ean indarrean sartuko direnak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2015eko urriaren 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAHIRU BAIEZKO BOTO]:**

EZ IGOTZEA indarrean dauden Urola Kosta eskualdeko auto-taxi zerbitzuaren tarifa urbanoak, Taxiaren Gipuzkoako elkarteak proposatutakoa aintzat hartuz. Tarifa horiek, beraz, indarrean segituko dute 2016ko urtarilaren 1etik aurrera.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETA, ERAGINA 2016KO URTARRILAREN 1ETIK AUERRERA IZANGO DUENA.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2015eko urriaren 26ko Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzailean diktaminatu da, segidan zehazten den eran:

1.- Urola Kostako Udal Elkartea osatzen duten herriei bat etortzeko, diktaminatzen da, alkatearen kalitatezko botoarekin, izaera urbanoko hondasun higiezinaren zergaren karga-tasak gehitzea, era honetan:

- ‰ 3,964, zona industrial edo tertziarioetan kokatuta dauden ondasun urbanoetarako.
- ‰ 2,024, gainerako ondasun higiezinatarako.

Familia ugarienezako hobariak indarrean segituko dute, honako zehaztasunekin:

- Familia ugariaren ohiko etxebizitza izan behar du eta familiako kideak bertan egongo dira errolatuta.
- Familia-unitateko kideek ez dute jabetzan eduki behar beste ondasun higiezinik, ohiko etxebizitzaz gain.

Diktaminatzen da nekazaritza izaerako ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikatzen zaion karga-tasa ‰1,10ean mantentzea.

Era berean diktaminatzen da **KENDUTA MANTENTZEA** modu iraunkorrean desokupatuta dauden etxebizitza-erabilerako ondasun higieziari aplikatzen zaien izaera urbanoko ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota likidoaren ‰100eko errekaragoa.

2.- Aho batez diktaminatzen da **EZ IGOTZEA** Orioko jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren exakzioarako hainbat ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskalean ezarritako gutxienezko kuoten gehikuntzarako koefiziente bakarra.

3.- Aho batez diktaminatzen da ez igotzea izaera urbanoko lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren urteko portzentajeak, eta igotzea zerga horren karga-tasa, ‰11tik ‰12ra.

Ondoko hobariak diktaminatzen dira:

- Irabazi asmoarekin egiten diren “Mortis causa” erako lur eskualdatzeetan edo jabaria mugatzen duten ondasunen gaineko eskubide errealak eratu edo eskualdatzean hobari hau izango da:

Kuota osoaren ‰50ekoa senar edo emazteentzat, izatezko bikoteak arautzeko maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikoteetako kideentzat, eskualdatutako ondasuna edo eskubidea ohiko bizilekua izanez gero, bere eranskin eta guzti, oinordeko horietako baten batentzat.



- Hobari hau eskatu beharrekoa da; beraz, izan nahi badu, herritarrek eskatu egin behar du.

4.- Gehiengo absolutuarekin diktaminatzen da ez igotzea orokorrean trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergari aplikagarri zaizkion tarifak eta bere horretan mantentzea zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalak ezarritako hobariak.

A) Turismoak atalean bakarrik diktaminatzen dira igoerak (ibilgailuen udal erroldan %79 dira); honela geratzen da:

Potentzia eta ibilgailu-mota	Kuota, eurotan
A) Turismoak	
9 zalditik beherakoak	38,30
9tik 11,99ra bitartekoak	79,35 (tarifa mantentzen da)
12tik 13,99ra bitartekoak	129,90
14tik 15,99ra bitartekoak	184,60
16tik 19,99ra bitartekoak	244,50
20tik gorakoak	302,30

Hobarien atalean argibide hauek egin behar dira:

- Motor elektrikodun ibilgailuek edo ibilgailu hibridoek zerga kuotan % 75eko hobaria dutela dioen atalean kendu egin behar da aipamen hau: "Hobariak gozatzeko, Udalak onartu behar ditu aldez aurretik; onarpen horrek eskaria egiten den zerga-aldian izango du eragina".
- Ibilgailu historikoek edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez 25 urteko antzintasuna dutenek % 100eko hobaria izango dutela dioen atalean honako aipamena gehitu behar da: "Hobaria gozatzeko, Udalak onartu behar du aldez aurretik eta, behin onartuta, hurrengo urtetik aurrera izango du eragina".

5.- Aho batez diktaminatzen da ez igotzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari aplikagarri zaizkion karga-tasak.

Indarrean segituko dute zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hobari guztiek.

6.- Aho batez diktaminatzen da ez igotzea ondoko tasen tarifak:

- Udal erabilera publikoko lurretan zangak eta hobiak irekitzea.
- Udal erabilera publikoko lurrak okupatzea; bere horretan eusten zaie ezarritako hobariei eta igoera bakarra diktaminatzen da a) Lehen tarifa: 0,35 € metro



- karratuko (edo zatiko) eta eguneko izatetik 0,40 euro izatera pasatzea; bestalde, 60 euroko gutxienezko tarifa bat ezartzea diktaminatzen da.
- Ibilgailuak sartzeari espaloian barrena eta bide publikoa erreserbatzea modu eksklusiboan aparkatzeko, ibilgailuak geratzeko eta edozein motatako salgaien zama-lanerako.
 - Edozein udal bide publikoren hegala-irteera okupatzea.
 - Indar elektrikoa, ura, gasa edo beste edozein fluido garraiatzeko linea, hoditeri eta galeriak.
 - Udal erabilera publikoko lurra okupatzea, mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzeko beste elementuak erabiliz, irabazteko asmoa dagoenean. Horretarako ezarrita dauden hobariak indarrean segituko dute. 3. tarifa, makina gaitzatzailerik dagokiena, kendu egiten da tarifa honetatik, beste batean jasota dagoelako.
 - Bide publikoan kioskoak instalatzea.
 - Udal erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, salmenta-guneak, ikuskizunak, atrakzioak eta horrelakoak instalatzea (kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinema-filmaketak barne). Horretarako ezarrita dauden hobariak indarrean segituko dute.
 - Bide publikoko lurzoru, lurrazpia eta hegalkinen erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia.
 - Kutxazain automatikoak eta bide publikotik irismena duten salmenta-makinen instalazioa eta funtzionamendua.
 - Auto-taxien eta errentako gainerako ibilgailuen lizentziak eta baimenak ematea.
 - Udal administrazioak edo udal agintariak norbaiten eskariz emandako agiriak.
 - Lurzoruari eta antolamendu urbanoari buruzko legeek exijitutako lizentzia urbanistikokoak ematea.
 - Estoldako zerbitzua ematea.
 - Ibilgailuak geraraztea eta bide publikotik erretiratzea.
 - Jarduera-lizentzia ematea eta jardueraren eta instalazioaren funtzionamenduari buruzko ikuskaketak egitea.

Tasa honetan diktaminatzen da %50eko hobaria aplikatzea jarduera lizentzien eta instalazioen tarifetan, Orioko kasko historikoan (Kale Nagusia, Pilliku plaza, Oa kalea, Urdaire kalea, Iturbide kalea —musika eskolatik kalearen



bukaeraraino— eta Antxiola kalea —Oa kalearekin bat egiten duen tokitik Claesens etxeraino—).

- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea.
- Udal pilotalekuaren erabilera eta Orioko Antilla hondartzako kabinen erabilera.
- Udak kiroldegiko garajeen erabilera.
- Kultur etxeko aretoen erabilera. Liburuen salmentari dagokion tarifyan, Kultura batzorde informatzaileak diktaminatutakoaren arabera, zuzenketa hau egin behar da: liburu guztiak 5 eurotan salgai egongo dira, “Gerra bat barruan degula” izeneko liburua izan ezik; azken hori 12 eurotan salduko da.
- Udalbatzarraren aretoaren erabilera.
- Azurza Etxeko tutoretzapeko apartamentuen erabilera. Erabiltzaileei aplikatzen zaizkien hobariak indarrean segituko dute; horretarako, diru-sarrera osoak kontuan hartuko dira (lan errentak eta kapitala) eta ez bakarrik pentsioen kopurua.
- Udal futbol/softbol zelaiaren erabilera.
- Iturriaga jauregian kokatutako Euskal Herriko Done Jakue Bidearen interpretazio-zentroaren erabilera.

1. tarifyan honako egokitzapenak egin behar dira:

- 10 urte arteko haurren sarrerak 1,50€/pertsoneko
- Erretirodun eta pentsiodunen sarrerak 1,50 €/pertsoneko
- Helduen sarrerak 2,00€/pertsoneko
- Taldeentzako sarrerak (gutxienez 15 lagun) 1,00€/pertsoneko

2. tarifyan honako hauek sartu behar dira:

- Koaderno txikiaren salmenta 1,00€/unitatea
- Tarteko koadernoaren salmenta 1,50€/unitatea
- Udaletxeko teilatupeko gelaren erabilera.
- Txu-txu trenaren erabilera eta publizitate-iragarkiak bertan jartzea.
- Udalaren txosnaren erabilera.
- Udalaren oholtzaren erabilera.



- Mendibeltz futbol/sofbol zelaiaren azpiko garajeen erabilera Tarifa hauek sartzea diktaminatzen da:
 - Gutxi gorabehera 16,50 metro karratuko azalera duten garajeak 20.000 eurotan (BEZ eta komunitate gasturik gabe) salduko dira.
 - Gutxi gorabehera 20,67 metro karratuko azalera duten garajeak 25.054,55 eurotan (BEZ eta komunitate gasturik gabe) salduko dira.
- Arraunetxeko instalazioen erabilpena Diktaminatzen da ontziak alokatzeko zerbitzuaren tarifak ez igotzea eta apalak erabiltzeko tarifak ere ez.
- Katea (KTA) eraikineko lokalen erabilera
- Salatxo udal aretoaren erabilera.
- Gaztelekuaren erabilera (kendu egiten da).
- Udal parrillen erabilera.

7.- Gehiengo absolutuarekin diktaminatzen da ez igotzea trakzio mekanikodun ibilgailuak aparkatzeko tarifak, horretarako zehaztutako zonatan eta ezarritako mugekin. Aparkatzeko eranskailu bat erosteko aukera emango zaie gaur egungo interesatuei eta, horiez gain, Orioko udal kanpinean partzela finkoak okupatzen dituzten bezeroei. Eranskailu horren prezioa, denboraldi osorako, 45€-koa izango da.

8.- Gehiengo absolutuarekin diktaminatzen da honako tarifak aplikatzea udal hilerrian zerbitzuak emateagatik eta kontzesioengatik, kontzesiodun enpresa pribatuak Udalari kobratuko diona kontutan hartuta:

- Hilobiratze eskubideak, oro har, 211,75 € nitxo eta panteoian eta 90 € kolunbarioan.
- Gorpuak lurreko hobitik ateratzeagatik: 296,45€.
- Gorpuak panteoi eta nitxotik ateratzeagatik: 235,95 €
- Gorpuak kolunbariotik ateratzeagatik: 90 €.
- Nitxoa adjudikatzea kontzesio administratiboko erregimenpean (15 urte): 1.350 €
- Panteoia adjudikatzea kontzesio administratiboko erregimenpean (50 urte): 10.000 €.
- Nitxoa adjudikatzearen luzapena kontzesio administratibo erregimenean (5 urte): 400 €.



- Kolunbarioak adjudikatzea kontzesio administratiboko erregimenpean (20 urte): 530 €.

Tarifa horiek zatikatzeko aukera izango da, zergadunaren egoera ekonomiko-familiarraren arabera.

9.- Zerbitzua erabat defizitarioa denez (495.811 euroko defizita), aho batez diktaminatzen da zaborrak eta hondakin solido urbanoak biltzeko zerbitzua ematearen tarifak %8 igotzea. Horrek suposatzen du, adibidez, etxebizitza bakoitzagatik 0,77 euroko igoera hileko.

Ezarrita dauden hobariak bere horretan segituko dute.

10.- Azken urteetan inolako igoerarik izan ez denez, honako tarifak diktaminatzen dira, aho batez, Orioko eguneko zentroan ile-apaindegi zerbitzuak emateko:

	Euroak
a) Orraztea	2,90
b) Garbitzea eta orraztea	6,70
c) Eskuz lehortzea	7,50
d) Ilea moztea	5,40
e) Metxak	17,50
f) Permanentea	15,40
g) Tindatzea.	14,70
h) Plisa	2,00
i) Bitamina	4,00
j) Crema	2,00
k) Manikura	4,80
l) Bekainak	2,00
m) Goiko ezpaina eta kokotsa	2,00

11.- Zerbitzu defizitarioa denez (183.440 euroko defizita), gehiengo absolutuarekin diktaminatzen da Musika Eskolako musika-irakaskuntzaren tarifak igotzea, honako hauek aplikatuz 2016-2017 ikasturterako:

Tarifa bakarrak	Euroak
a) Musika mintzaira ikasleko	245



b) Instrumentu ikasgaia ikasleko maila guztietan	370
c) Musika tailerra ikasleko	178
d) Kendu egiten da	
e) Bigarren instrumentua ikasleko maila guztietan	616
f) Euskal dantza ikasleko	245
g) Euskal dantza ikasleko (beste instrumentu batean ere matrikulatuta egonda)	140
h) Musika instrumentuen alokairua (etxera eramanda)	115
i) Musika instrumentuen alokairua (musika eskolan)	65
j) Instrumentu taldea soilik ikasleko	70

12.- Udal kanpinaren zuzendariak egin behar duen tarifen azterketa konparatibo baten faltan, gehiengo absolutuarekin diktaminatzen da udal kanpina erabiltzeko tarifak %2 igotzea.

Atzerriko bezeroei aplikatzen zaien hobariak aurreikusi behar dira ("ACSI PUBLISHING BV" programan sartuta daudenak).

13.- BPXport Kirol Zerbitzuak hala proposatuta, udal kiroldegia erabiltzeko tarifak, batz bestea, %3 igotzea diktaminatzen da gehiengo sinplearekin.

14.- BPXport Kirol Zerbitzuak hala proposatuta, tenis/paddle/squash pistak erabiltzeko tarifak, batz bestea, %3 igotzea diktaminatzen da gehiengo sinplearekin.

15.- BPXport Kirol Zerbitzuak hala proposatuta, Arraunetxeko instalazioak erabiltzeko tarifak egokitzea diktaminatzen da, gehiengo sinplearekin, medikuntzari eta kirol-elikadurari dagokionez eta hipoxia aretoaren erabilerari dagokionez. Tarifak honako hauek izango dira:

Prestakuntza fisikoa

- | | |
|---|-------------------|
| • Aholkularitza | (kendu egiten da) |
| • Prestakuntza indibidual pertsonalizatua | 58,50 € |

Nutrizioa

- | | |
|---|---------|
| • Kirol azterketa eta dieta pertsonalizatuak | 58,50 € |
| • Argaltzeko azterketa eta dieta pertsonalizatuak | 58,50 € |
| • Kontrola eta jarraipena | 26,30 € |



- Nutrizio fisiopatologikoa 90,00 €

Medikuntza

- Oinarrizko azterketa medikua 45,80 €
- Oinarrizko esfortzu testa (elektrokardiograma) 88,00 €
- Esfortzu test aurreratua (elektro+laktatoak) 122,40 €
- Ekografia 82,00 €

Hipoxia

- Saio bakarra 25,00 €
- 10 saioko bonoa 120,00 €
- 20 saioko bonoa 200,00 €

16.- Udal ludoteka erabiltzeko tarifei dagokienez, honako tarifak diktaminatzen dira aho batez:

- Ikasturte osoa (2015eko azaroa - 2016ko ekaina): 45 €
- Bigarren matrikulazio-aldia (2016eko urtarriletik ekainera): 30 €
- Hirugarren matrikulazio-aldia (2016ko apiriletik ekainera): 15 €

Udalbatzarrak PSE-EE-PSOE talde politikoak egindako proposamenaren berri jakiten du: PSE-EE-PSOE taldeak proposatzen du musika eskolako 2016-2017 ikasturteko tarifen onarpena mahai gainean uztea, dagokion batzorde informatzailean gaia aztertu eta diktaminatu arte.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, PSE-EE-PSOE talde politikoak egin duen proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldua (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Emeterio Iribar (EHBildu), Dorronsoro (EHBildu), Igoa (EHBildu), Amagoia Iribar (EHBildu) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **HAMAIA ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **BI ABSTENTZIO**]:

MAHAI GAINEAN UZTEA musika eskolako 2016-2017 ikasturteko tarifen onarpena.

Emandako botoa azaltzeko, Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EHBilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak baieztuko boto kritikoa eman duela, iruditzen zaiolako 2016ko ordenantza fiskalen onarpenaren tramitazioan inprobisazioa izan dela nagusi.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Emeterio Iribar (EHBildu), Dorronsoro (EHBildu), Igoa (EHBildu) eta Amagoia Iribar (EHBildu), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**. Abstentzioak: Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **BI ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Ordenantza Fiskalen Aldaketari eta bere eranskinei, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminotan.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Agindua 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, honako arauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Amaia Dorronsoro zinegotziak hartzen du hitza, EHBilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela ez zaizkiolako egokiak iruditu ez prozedurak eta ez edukiak, aurreko udalbatzar batzuetan behin eta berriz adierazi izan duen bezala.

Miriam Uranga zinegotziak hartzen du hitza, Orainen izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela honako arrazoiengatik:



- Proposatzen zelako Orioko Udal Musika Eskolan egindako ikasketen tarifak %17 igotzea, nahiz eta urte arteko KPIa negatiboa izan.
- Zaborrak eta hondakin solido urbanoak biltzeko zerbitzuaren tarifak %8 igo direlako. Beren ustez, egokiena birziklatze-tasak handitzea da, horretarako dagozkion hobariak planteatuta. Bestalde, lehenbailehen atera beharko lirateke lehiaketara etxez etxeko hondakinen bilketa zerbitzua eta kale garbiketa zerbitzua.
- Udal hilerriko zerbitzuen tarifatan onartu diren igoera handi horiek modu gradualean aplikatu behar zirelako, lau urteko epean.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA 'EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA' DELA-ETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Adierazpen instituzionalak honela dio, hitzez hitz:

AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA "EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA"

Azaroaren 25a dela eta, data horixe izendatu baitu Nazio Batuen Erakundeak "Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna", gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu emakumeen aurkako edozein indarkeria adierazpenetikiko, zeinahi ere den (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), bai halaber sexismo-modu guztiekiko, barne daudelarik finenak eta normalizatuena, hala nola sexuen arabera rol estereotipatuak ezartzea edo bizitzaren esparru askotan emakumeak ikusgai ez egotea, besteak beste. Berretsi nahi dugu, era berean, arazo estruktural baten aurrean gaudela eta, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunik eza oinarri duenez, ezinbestekoa dela berdintasun-politikak baliatzea, adituek zein nazioarteko erakundeek gomendatzen duten bezalaxe.

Emakumeen aurkako indarkeria gizartearen egituraren bertan oinarritzen da; izan ere, oraindik ere aukera desberdinak eskaintzen zaizkie emakumezkoen eta gizonezkoen, eta oraindik ere jaiotza-sexuaren arabera pertsonen askatasuna mugatzen da. Saiatu behar dugu bestelako gizartea eraikitzen, non pertsona guztiek askatasuna izango duten nahi duten bezalakoak izateko, non aukera izango duten potentzialtasun osoz garatzeko, eta non giza eskubideei begira berdintasunezko eta begirunezko tratua jasoko duten.

Gure xedea da pertsona guztiekiko tratua onak bermatuko dituen gizarte batean bizitzea, urrats bat gehiago emango duen gizartea eta, emakumeenganako



indarkeriaren aurka agertzearekin batera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde argiro azalduko den gizartea. Gure aldarrikapena da pertsonen arteko harremanak errespetuan, autonomian eta berdintasunean oinarrituko dituen gizartea. Errespetatzea ez da bakarrik ez erasotzea; aitzitik, berorren esanahia ere da pertsona bakoitzak, berdintasunik ezak dakarren mugarik gabe, bere bizitza-ibilbidea irudikatu ahal izateko bermea edukitzea.

Erakundeetatik geure ardura sozial eta politikoa onartu behar dugu, tratu onak sustatuko dituen gizartea eraikitzeke orduan, eta horretarako gure aurreiritziak, rolak eta eguneroko jarduerak gure baitatik berrikusten hasi.

Horregatik guztiagatik:

- Konpromisoa hartzen dugu gure eskuduntzen esparruan udal politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko, tratu onen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde.*
- Eta herritarrak gonbidatzen ditugu berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak har ditzaten, urteko egun guztietan, baita azaroaren 25a dela eta burutuko diren ekitaldietan parte har dezaten ere, bai halaber gazteen arteko prebentzio eta hezkuntzarako 'Beldur Barik' ekimenean.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Emeterio Iribar (EHBildu), Dorronsoro (EHBildu), Igoa (EHBildu), Amagoia Iribar (EHBildu) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **HAMAIIKA ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunari buruzko adierazpen instituzionala, goian jasota dagoen bezalaxe.

Miriam Uranga (ORAIN) eta Jose Angel Iparragirre (ORAIN) zinegotziek ez dute bozketan parte hartzen, aurreko hainbat udalbatzarretan emandako arrazoiagatik: uste dutelako udalbatzarrerara ekartzen diren mozioak dagokion batzorde informatzailean eztabaidatu eta adostu behar direla aldez aurretik, taldeek eduki dezaten aukera gaia behar bezala aztertu eta ekarpenak egiteko.

6.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Gotzon Igoa zinegotziak (EHBildu) hartzen du hitza eta alkateari galdetzen dio ea nolatan eman duen Udalak baimena Motondon aeromodelismoa praktikatzeko, eta zein prozedura segitu den horretarako. Alkateak erantzuten dio esanez berak ahoz eman duela baimena jarduera horretarako.



ORIOKUDALA



Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,